

## ■ BERTSOLARITZA ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

# «Hernanin bertsoaren haria ez da eten»

Eizagirre kazetariak idatzi du 'Bertsoaren haria Hernanin' liburua, Hernanin ezagutzen den lehendabiziko bertsolaritik gaur egunerainoko bilduma. Aurkezpena, igandean, 12:30etan, Biterin.

**750 orrialdeko liburua idatzi duzu, eta ia 250 urteko bertso historia ageri da. Zein da ondorio nagusia?**

Ondorio nagusia da, Hernanin bertsoaren haria ez dela eten. Lotura kuriosoak daude: adibidez, liburuan azaltzen den bertsolaririk zaharrena eta gazteena familia berekoak dira, Txabolategi eta Eli Pagola, 250 urteren diferentziarekin. Eta hernaniarrak dira, Euskal Herriak eman dituen bi bertsolari goi mailako: Joxe Manuel Lujanbio bere garaian, eta Maialen Lujanbio gaur egun.

**Bertsoari buruz hainbeste idatzi da... baina primiziak ere baditu liburu honek?**

Joxepa Zubeldia bertsolariaren biografia dakarki liburuak. Baztanga zela eta Hernanin emakumeek egindako borroka kontatu zuen Zubeldiak bertsotan. Bertsoak oso ezagunak dira, baina bertsolariaz apenas genekien ezer. Tilosetan herri bazkari batean kantatu zituen bertso hauek, mahai gainera igota. Eta anaia etxepean pasatzen zenean bertsoa kantatzen zion, eta Joxepak balkoitik erantzun. Bertso, poesia eta errezu asko idatzi zituen. Garai hartan ez zegoen ondo ikusia emakume batek kalean kantatzea, baina berak jende aurrean kantatzen zuen. Sekulako kasta zeukan emakume harek! Zubeldiarenak erakusten du, oraindik berreskuratzeko pertsona eta bertso asko daukagula inguruko artean.

**Txirritari egindako elkarrizketa bat dakarki... Larrabetzu.org webguneko**



Estitxu Eizagirre Kerejeta, sei urteko lana eskutan duela.

kideek deskubritu zuten elkarrizketa, eta guk hona ekarri dugu. Eta aipatu nahi nuke Agustin Iturriaga ere, euskarari egindako ekarpenagatik. Aita Zavalak bere bertsoak ekarri zituen, tartean Muñagorriren bertsoak bereak zirela dio. Baina liberala zen, eta ez zuen bere bizitzari buruz ezer idatzi. Hutsune hori Mikel Zalbildek bete zuen. Guk bien lanak elkartu ditugu, eta emaitza guztiz interesgarria da: aurrerakoia izan zen euskara

biziberritzeko planteamentuan, hezkuntza aldetik... Hernaniko herriak ikur hartu beharko luke Iturriaga, bere figura zabaldu.

**Zortzi zatitan banatzen duzu liburua, garaika.**

Bai. Garai bakoitzean aktibo zeuden bertsolariei buruz ari gara, guztira 80 inguru, eta aipamena egiten zaie beste zenbaiti ere. Horrez gain, hainbat gai landu ditugu, orokorrak direnak, eta garai batetik bestera pasatzen

«Lan honen oinarrian 50 elkarrizketa daude, eta elkarrizketatu horiek kontatzen dute historia, lehenengo pertsonan».

direnak: gerrak, erronda, bertso eskola... Garai bakoitzari sarrera historikoa egin dio Urko Apaolazak.

**Atentzioa ematen du, Estitxuk berak ez duela bere iritzirik ematen liburuan. Nolabait, besteri uzten diela ahotsa...**

Lan honen oinarrian 50 elkarrizketa daude, eta elkarrizketatu horiek kontatzen dute historia, lehenengo pertsonan. Nik egin dudana da, horiek esandakoa transkribitu eta forma eman, eta informazio gehiago behar zen kasuetan, bilatu. Auspoa saileko 15 liburu ere erabili ditut, Zeruko Argiak, Bertsozale elkarteak datu basea..

Baina funtsean, ahots askok dute bakoitzak bere historia. Testuz, testigantza, argazkiz, bertsoz osatutako puzzle bat da, nik piezak elkarren ondoan jarri ditut, ez besterik. ■

**Bertsoaren haria Hernanin**

**Egilea:** Estitxu Eizagirre Kerejeta

**Argitaratzailea:**

Hernaniko Bertso Eskola

**Laguntzailea:** Hernaniko Udala

**Salgai, 25 euroan:** Dobera euskara elkarteak, argia.com-en, Leokadisti liburu-dendan eta Hernaniko Elkar Megadendan.

## ■ GOIZ EGUZKI

### Bihar, paseoa eta hamaiketako

Goiz Eguzkik antolatuta, bigarren paseoa egingo dute bihar goizean, Hernaniko inguruetan. Goiz Eguzkitik bertatik abiatuko dira, goizeko 10:00etan, eta Osiñaga aldera joango dira. Otsua-enean haimaiketako egin, eta Goiz Eguzkira buelta. ■

## ■ ZINEA

### Sarrerak gaur, '8 apellidos vascos' ikusteko

Gaurtik astelehenera, berriz emango dute *8 apellidos vascos* pelikula arrakastatsua. Sesio guztietarako sarrerak gaurtik izango dira salgai, tiki-lla orduetan: gaur, 21:30-22:45; bihar 16:30-22:45; igandean 16:30-22:15; eta astelehenera 16:00-16:45. Prezioak, 4 euro ostiral, larunbat eta igandeko saioetarako; eta 2,5 euro astelehenerako. ■

## ■ ARTISAU AZOKA

### Gastronomia eta eskulanak, gaur, bihar eta etzi

Euskal Herriko eta beste hainbat lurretako gastronomia eta eskulanak izango dira hiru egunez Hernanin. Gaur, bihar eta etzi, Gudarien plazan egongo dira, goiz eta arratsalde (11:00-15:00 / 17:00-22:00). Magoak ere izango dira, ipuin kontalariak, tatuajeak... ■

## ■ KONTZERTUA

### Akordeoi eta txelo kontzertua, bihar

Akordeoi eta txelo kontzertua izango da, bihar, 20:00etan, Milagrosan. Hogei bat pieza joko dituzte, zenbait autore ospetsurenak: J.S. Bach, Maurice Ravel, Edward Grieg, Pablo Sarasate, Dave Brubeck eta Astor Piazzolla. ■

## ■ PRESO ETA IHESLARIAK

### Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

Kontzentrazioa gaur, 20:00etan Plazan. Lema: *Euskal preso eta iheslariak etxera.* ■

**Zorionak amona Pepi eta aitona Jose Luis!**

**50 urte elkarrekin!**

**Etxeko partetik**

**BigMat**  
Ariceta, s.a.

ALMAZEN MULTIESPEZIALISTA

HERNANI  
Espozizioa, Eraikuntza eta Iturgintza  
almazena:  
Ibaiondo poligonoa, 30  
Espozizio telf: 943 336 186  
Eraikuntza telf: 943 550 655  
Iturgintza telf: 943 552 094

DONOSTIA  
Espozizioa Galleteros, 10  
Telf :943 451 111

Bertako sagarra

**Itxas-Buru**  
Sagardotegia

**Maiatzaren 4ra arte irekita**

Asteazkenetik igande eguendira irekita

Osiñaga Auzoa  
20120 HERNANI  
TEL. 943 556 879  
www.itxasburusagardotegia.com

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622  
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbietan 7 943 552941 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

**EGURADIA**  
**GAUR** Hobera egingo du, baina goizean oraindik ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta euria egingo du. Arratsaldean pixkanaka hobetu egingo du. Min.8°/Max.16°

**BIHAR** Goizean ostarte batzuk ikusiko dira. Baina arratsaldean fronte berri batek euria ekarriko du, eta ipar-mendebaldeko haize hotza. Min.11°/Max.17° (euskalmet)

## MAIATZAK 1 LAB SINDIKATUA



Prentsaurrekoa eman zuen atzo LABek, Langileen Nazioarteko Eguneko manifestazioaren berri emateko.

## «Lehen lortutakoa berreskuratu behar dugu, borrokaren bitartez»

Maiatzaren 1ean Hernanin egingo da manifestazioa, Buruntzaldean LABek deitutakoa, «herritar guztiengana iristeko». 12:00etan, Plazan.

LANGILEEN Nazioarteko Egunean, Maiatzaren 1ean, deitutako manifestazioaren berri emateko prentsaurrekoa eman zuen atzo Hernaniko LAB sindikatuak.

Egun horretako manifestazioetako bat Hernanin egingo da, 12:00etan Gudariaren Plazatik abiatuta. Eskualdeko manifestazioak antolatu dituztenez, Buruntzalde mailakoa izango da Hernanikoa, baina gehiago ere egingo dira Donostian, Beasainen eta Tolosan, «herritar guztiengana iristeko».

### «Krisiaren aitzakiarekin buelta eman zaio lortutako guztiari»

Maiatzaren 1ean aldarrikatu nahi dena zer den azaldu zuen atzokoan LAB sindikatuak.

«Orain urte batzuk lortu ziren eskubide batzuk: langileen estatutua, 40 orduko gehienezko lanaldiak zehaztea, marko edo hitzarmen probintzial eta autonomoak... Krisiaren aitzakiarekin buelta eman zaio lortutako guztiari; 2013ko uztailaren 7an hitzarmen kolektibo gehienak erori ziren. Eta hori dena lortu zen borrokarekin, sufrimendurekin, konfrontazioarekin. Martxoaren 3koa langileen arteko konfrontazioa izan zen, oso gogorra. Eta gaur egun ere

«Gaur egun ere konfrontazioa behar da, negoziazioak itxi gabe».

«Erabakitze eskubidearen premia langile mugimendura ekarri nahi dugu».

konfrontazioa behar da, negoziazioak itxi gabe, baina konfrontazioa. Gure indarra kalean dago. Lehen lortutakoa berreskuratu behar dugu, borrokaren bitartez».

LABen ustez, «krisia iruzur haundi bat da, aberatsak aberatsago eta pobreak pobreak egin dituen». Horren aurrean «borrokaren garrantzia azpimarratu» nahi du sindikatuak. «Azken 3-4 urteetan bospasei greba orokor eta beste 3 bat sektorial egin ditugu».

### «Irtenbidea da bertan erabakitzea»

Egungo egoerari aurre egiteko «erabakitze eskubidearen garrantzia» azpimarratu zuen LABek atzokoan. «Erabakitze eskubidearen premia langile

mugimendura ekarri nahi dugu. Horregatik, manifestazioaren leloa: *Langileok erabaki. Euskal Herriak erabaki dezan*».

Bestelako jarraibide batzuk ere baditu LABek, baina «bertan erabakitzea ezinbestekoa» dela uste du. «Sindikatuaren batasun estrategikoaren alde egiten jarraitzen dugu, ELA-LABen artekoa, nazio mailako eraikuntzan. Konfrontazioak egongo lirake, baina horrela lortuko genituzke eskubideak denontzat. Ez bakarrik afiliatuta daudentzako edo lanean ari direnentzako, baizik eta guztientzako eta langabetuentzako. Onena dira negoziazio kolektiboak eta hitzarmen probintzialak. Baina aldarrikatzen dugu bertan erabaki behar dela. Euskal Herrian erabaki, neurriak hartu, zein motatako marko eta Euskal Herria nahi ditugun...».

### «Talde kolpatuenen defentsa»

Hau guztia aldarrikatzeaz gain, LABek ekitaldia egingo du Maiatzaren 1ean, manifestazioaren ondoren, «talde kolpatuenak defendatzeko: hezkuntza eta osasungintzaren pribatizazioaren eragina jaso dutenak; emakumeak, oso egoera prekarioan daudelako; langabetuak, gero eta gehiago direnak; gazteak; eta negoziazio kolektiboaren arazoak eragindakoak». ■

## OLINPIADAK

### Pintxandartea eta O Faktorea, hasteko

Bihar hasiko dira Gazte Olinpiadak, lehenengo bi probekin. Goizeko 10:00etan hasita, Tilosetan.

BIHAR hasiko dira azkenean Olinpiadak, eta festari ekiteko, bi proba antolatu dituzte: Pintxandartea eta O Faktorea. Goizeko 10:00etarako egin dute keda, Tilosetan, eta ordu erdi beranduago hasiko da lehia.

Pintxo eta estandarteak aurkeztu beharko dituzte taldeek, 10:30etatik aurrera, eta

12:30etan baloratuko dituzte. Jarraian, bazkaria izango dute (14:00etan), eta kafe-kopak. Arratsaldeko 16:00etan berriro ekingo diote lehiari, O Faktorearekin. Ondoren, ekitaldi bat burutu (18:00etan), eta txarangak girotuko ditu kaleak, gaueko kontzertuetara arte (21:30etan). ■



Lau finalistak, aukeratutako pelotekin, Galarretan.

## ERREMONTEA

### Pelotekin gustora, finalerako prest

Prest dira Sagardoaren Txapelketako finalistak. Launa pelota aukeratu zituzten atzo, eta materialarekin gustora azaldu ziren. «Txapelketa osoan izan ditugun peloten antzekoak dira, eta ez dira aitzakia izango finalean», azaldu zuen Ionek. Berak eta Etxeberria IVak pelota biziagoak aukeratu zituzten: 127'2, 127'8, 130 eta 130'2 gramokoak. Matxin III eta Etxeberria IIIak, berriz, motelagoak: 127'1, 128'6, 129 eta 130'6 gramokoak. Partidu estua espero du Etxeberria IVak: «Ez dago faboritorik». Etxeberria IIIak, klabea lehenengo tantoetan ikusten du: «Hasiera izango da finalaren gakoa». ■

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## JESUS IRURTIA LIZASOAIN



Zure oroimena, alaitasuna eta borondatea beti izango dira gure bihotzetan.

**HERNANI ATLETISMOA**

Hernanin, 2014ko apirilaren 25ean



## IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Itigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)